

URDUÑATIK GOROBELERA EZOHIKO BIDEETATIK

Aurten negu gordina izan dugu, euritan blai igaro ditugu egun gehienak eta elurra noizbehinka, baina halako batean zerua argitu eta Gorobel aldera joatea otu zaigu. Makina bat alditan joandakoak gara Gorobelera, sarri paseo txiki bat ematera euritakoa eskutan. Oraingo honetan, ordea, beste zerbaitetarako gogoia genuen Kepa eta biok. Abenturazalearen grinari men eginez, ohiko bide ederrek alde batera utzi eta Txarlazora zuzenean igotzea erabaki dugu. Hala eskatzen du gorputzak, baita senak, eta gustura askoan ibiliko gara, Urduñan hasi eta 14 kilometro inguruko ibilaldia osatuz.


Urduña 1229. urtean sortutako hiribildua da eta Bizkaiko jaurreriko hiria izan zen, Arabako eta Burgosko lurrez inguratutako Bizkaiko barrendegia. Gaztelarekin lotzen zuen bidean aduana jarri eta merkataritza gune garrantzitsua bihurtu zen XVIII. mendean. Ibilbidearen deskribapenarekin hasi aurretik, lehenbizi zenbait lerro eskaini nahi dizkiot Gorobeli, hamaika txoko edo dituen mendilerroa baita. Askok, inguru hau Sierra Sálvada bezala ezagutzen dute, askotan gertatzen den bezala mugaren aldearen arabera izaten da hau ere. Kantauri eta Mediterraneoko uren banalero eta ur-jauzi edo biren topaleku dugu. Eurite edota elurte oparo baten ondoren, bisita merezi duten tokiak dira bai Delikako ur-jauzia (edo Nerbioi ibaiaren jauzia) zein San Miguelekoa (Angulo). Bertatik gertu ere Goiuriko ur-jauzia dugu. Mendilerro honek ez du parakorik. Deigarriak dira ipar paretako sakana eta pagadiz betetako parajeak. Bertan, 933 metroko garaiera duen Txarlazo gailurra

altzatzen da eta Urduñatik bertatik ikusten da gailurrean dagoen Antiguako Ama Birjinaren monumentu erraldoia. Izan ere ez da nolana hikoia, 25 metroko altuera baitu. Txarlazo gailurra Goldetxoko edota Urduñako gailur bezala ere ezagutzen da.

Elezaharrak dionez, artzain batek Ama Birjinaren irudia masustondo baten adarren artean aurkitu omen zuen

Ibilbidea Antiguako Ama Birjinaren santutegian hasi dugu, bertan kotxea aparkatzeko lekua asko dago eta ur-kantimplora betetzeko iturria ere santutegiaren aurrean. Elezaharrak dionez, artzain batek Ama Birjinaren irudia masustondo baten adarren artean aurkitu omen zuen. Historiagileek, X. mendean bertan kokatzen dute Ama Birjina gurtzen zuten lehen monasterioa eta ondoren, XIII. mendean eraiki zuten Antiguako eliza. Gutxi geratzen da Erdi Aroko eraikinaz, 1782an berreraiki baitzuten. Azpimarragarria dugu santutegian gurtzen den Ama Birjinaren XIV. mendeko estatua gotikoa.

Santutegiaren ezkerretatik gora egin dugu eta zeharkako errepidea gurutzatu eta gero, zuzenean gora jarraitu dugu porlanezko bideetik. Ez gara larritu, pixkana-pixkanaka pagadiz betetako basoan barneratu gara eta. Hasiera batean Goldetxoko leporako ohiko bidea jarraitu dugu, astiro-astiro hankak berotuz eta basoaz gozatuz. Txarlazoko gailurra



TESTU ETA ARGAZKIAK



Mireia Irazola Duñabeitia
(Elorrio, 1986)

Etxeko eskutik ikasi zuen natura eta mendia maitatzen. Kimikan doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitatean ikerlari lanetan jarduten du. Udalatx bere bihotzeko mendia izanik, beste paraje eder askoan ere ibilitakoa da, Pirinioetan hasi eta Dolomitak arte.



Txosna atsedenekuan aurkitzen den Goiko Landetako trikuharria, Iturrigorri atzean

Txarlazoko gailurretik ikuspegi ederraz goza daiteke, Urduña behean eta Gorbeia urrunean

Aurrera begira gaudela, gora igotzeko hiru igobide daudela antzeman ditugu. Guk aspaldiko zutoin elektrikoa duen kanaltxotik

igotzea erabaki dugu, hots, erdialdean ikusten den igarobide edo kanaletik. Beste aukera bi ere baditugu, ezkerraldean igo daiteke, baina duen jausiarengatik arriskutsuagoa da, eta eskuinaldean igotzeko aukera ere badago, baina zuhaixkaz betetako bide zikinagoa da. Hor dago gainditu beharreko lehen irtengune edo pareta. Hemendik aurrera ageriko bidea jarraitu dugu, dena zuzen eskuinerantz mal-

dan gora. Arazo gabe igotzen da, baina biziki gomendatzen dugu igoera hau lursailak lehor daudenean egitea. Aurrera goazela bigarren irtengunea edo pareta aurkitu dugu, hau txikitxoagoa da eta eskuinaldeko kanaletik igo dugu. Behin hau gaindituta, laster batean gailurrera iritsi gara.

Txarlazok 933 metroko garaiera du eta bertan aurkitzen da gailur batean aurkitu



Bigarren irtengunera bidean

dudan monumenturik bitxiena. 1904. urtean eraiki zuen Claudio Duránek. Elezagarrean oinarritutako hormigoi armatuko Ama Birjina sostengatzen duen zuhaitz erraldoi bat da, 25 metroko altuera eta beste 3ko diametroa dituelarik. Monumentua garai hobeak bizitakoa da, aluminioak jota baitago. Gaur egun ezin da barrutik bisitatu, baina zuhaitzaren adaburura eramaten zaituen 66 maila dituen eskailera bat dago. Goian, egongela bat eta ikusmira ederreko balkoi bat omen dago. Txarlazoko gailurretik ikuspegi ederraz goza daiteke, Urduña behean eta Gorbeia urrunean.


Ibilbidearekin jarraitzeko Goldetxoko lepora hurbildu beharra dugu. Leku polita da hau ere, ikazkinek garai batean euren izerdiz

arrokan zabaldutako bidea, baina guk aurrera jarraitu dugu Txoloperako bidean, mendebalderantz. Goranzko bidean Txolopeko txabola eta iturria ikusi ditugu. 1027 metroko garaiera duen gailur honetan ez dago buzoi faltarik. Pausoz pauso aurrera segi eta Solaiera gailurrera heldu gara. Txolope gailurretik oso gertu dagoen 1038 metroko gailurra. Solaietatik Bedarbide gailurra ikusteko gai izan gara. Bedarbidera ere ez dago galtzerik, bidezidor baten eraman gaitu bertaraino. Bidean goazela Atezabaleko gailurretik (1027 m) igaro gara eta Atezabal eta Bedarbideko atakak ikusi ditugu. Momentuz Bedarbidekoa albo batera utzi dugu, metro eskasera dagoen Bedarbideko buzoiara hurbiltzeko.

Txosna edo La Choza atsedenleku eta aparkalekutik Iturri gorriko ikuspegi ederra dago

Bedarbideko lepoa edo ataka 1000 metroko garaieran dago eta bere aho-buruan txabolatxo bat aurkitu dugu. Puntu honetan 500 metro inguruko jaitsiera dugu aurretik. Hasieran malda nahikoa piko da eta mendiko-makilen laguntza faltan izan dugu. Jaisteko orduan zutoin elektriko erraldoia erabili dugu gida bezala, horren ondotik pasa behar baita, hala ere bidea PR ibilbidearen bide-seinalez zuri eta horiez balizatuta dago. Beheranzko bidean harri puska ederra jauzi zaigu gugandik 3 metrora eta sekulako sustoa hartu dugu.

Txarlazo gailurreko Antiguako Ama Birjinaren monumentua



Izozketa eta urtze prozesuen ohiko ondorio baten emaitza izan da eta holakoetan adi ibili beharra dago.

Txosna (La Choza) basabidearekin batu gara azken ur-jauzian eta aurrera jarraitu dugu Txosna iturri (Fuente La Choza) atsedeneku-rra iritsi arte. Ez erratu puntu hau aparkalekua eta trikuharria duen puntuarekin, hori aurrera-txoago aurkituko baitugu. Txosna edo La Choza atsedeneku eta aparkalekutik Iturri gorriko ikuspegi ederra dago. Bertan, iturria eta Goiko Landetako trikuharria aurkitu ditugu. Puntu honetatik aurrera basabideak albo batera utzi eta bide bazterretik bueltatu gara Urduñako Antiguako santutegira, Lateta atsedenekuaren ondotik igaroz. Abiapuntura iristean, 14 kilometro oinetan, 829 metroko desnibela hanketan eta irribarre zabala ahoan. Hurren arte Gorobel!



Goldetxoko lepora bidean

